



Behi bi blues
Gaizka Azkarate & Azkaiter Pelox
Gaztelupeko Hotsak, 2014

Baby, baby, behi bi

UNAI AZKARATE Bergarako musikaria Fly Shit taldea utzi ondoren hasi zen Azkaiter Pelox moduan 2004an, blues, rhythm and blues, rock and roll eta beste zenbait doinu beltz lantzen. Azken urteotan hainbat disko kaleratu ditu, 2012an *Zamburleiker 6.0* izenekoa, eta hainbat modutan aritu da jendurrean: Azkaiter Pelox, Azkaiter Pelox Band, Azkaiter Pelox eta The Road Band –Carlos Ortiz eta Amaia Azpiazu musikariekkin–, Mahaster River, Gaizka Azkarate & Azkaiter Pelox...

Hain zuzen, Gaizka Azkarate Soraluzeko gaztearekin osatu du *Behi bi blues* diskoa. Azkaratek harmonika jotzen du, Azkaiter Peloxek gitarra jo eta kantatu, eta kantuak Fredi Pelaez teknikariaren laguntzarekin grabatu dituzte Beasaingo Pottoko estudioan.

Kantu gehienak Azkaratek eta Peloxek beraiek sortu dituzte, eta bertsio pare bat egin dute. Otis Reddingen *Sittin' on the Dock Of The Bay* kantuaren bertsioaren bidez Gipuzkoako Orioko itsas ertzera eraman gaituzte, eta Bap! taldearen *Ez dut ezer esan nahi* hardcore kantua modu akustikoan egin dute, beren erara.

Blues doinuak dira, baina bluesaren giro malenkoniatsuari bizitasuna gehitzen diote eta ironiaz idatzitako hitzek irribarrea eragiten dute. Giro polita sortzen dute, azken batean. Azkaiterrek berak aitortu duenez, gai sakonen edo potoloen gainean hitz egin baino, nahiago dute xumeagoak diren beste gai batzuen edo gertakizun txikien inguruan aritu.

Bluesa maite dutela nabarmena da, ongi ezagutzen dutela. Doinu horiek jotzen eroso aritzen dira, eta aise egiten dute. Dena den, beren kantuak beste zenbait estiloren ukituak ere badituzte. *Zerbait begian*



sartu zait eta *Etxera bueltan* kantuetan, esaterako, funk eta swing aireak suma daitezke. Etxera bueltan kantuan, hain zuzen ere, bidaiak dituzte hizpide. Azkaiterren hitzetan, Gaizka eta bera oso bidaia zaleak dira, eta bidaiak eskaintzen omen diete kantuak sortzeko inspirazioa.

Azkaiter Peloxek eta Gaizka Azkaratek eskarmentua ez ezik, umorea, gatza eta piperra erakusten dute kantuak jotzean. Ausardiarekin, batere beldurrik eta lotsarik gabe aritzen dira, erraztasun handiarekin, eta musika tresnak ongi menperatzen dituztela eta ederki pasatzen dutela nabarmena da. Beren kantuak gustura entzuten ditut. Diskoan eta jendurreko emanaldietan. ■

Joxi Ubeda